

KANALAK

Gure zerbitzua bezeroengana helarazteko 3 jarduera nagusi bereiztu beharko ditugu: komunikazio-kanalak, eta banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak.

Komunikazio-kanalak

Gure bezeroei musukoen edukiontzia helarazteko hainbat jarduera egingo ditugu:

1. Publizitatea: Leioaztar guztiei gure zerbitzuaren berri emateko panfletoak banatuko dizkiegu. Panfletoak banatzeko bi prozedura erabiliko ditugu: alde batetik, kaletik zehar banatzaileak egongo dira, herritarrei orriak banatzen. Bestalde, Leioako eraikin publikoetan (Sakoneta polikiroldegia, anbulategia, udaletxea, euskaltegia, kontserbatorioa...) edukiontziei buruzko panfletoak ipiniko ditugu eskuragarri. Beste ideia posiblea da panfleto hauek etxez etxe banatzea.
2. Bigarren aukera moduan, ontziak Leioako leku espezifikoetan jartzea izango litzateke; ontzien ondoan informazioa jarriko genuke haien erabileraren berri emanez. Biztanleen erantzunak eta onarpena jaso arte itxarongo genuke.
3. Eusko Jaurlaritzak edukiontziei buruzko iragarkiak egin ditzake, edukiontzia telebistan, sare sozialetan etab. erakusteko.

Banaketa-kanalak

Edukiontzia erabiliko direla ziurtatzeko, Leioako leku espezifikoetan jarri beharko ditugu, jende gehien igarotzen den eremuetan, alegia. Hurrengo eremuetan jarriko genituzke: (Leioako zonalde desberdinetan kokatu beharko genituzke: Lamiako, San Bartolomé, Mendibile, erdigunea...)

- Anbulategia
- Kontserbatorioa
- Udaletxea
- Ikastetxeak, institutuak
- Zaharren egoitzak
- Boulevarra, José Ramón Aketxe plaza, Pinotxo parkea, Pinosolo...
- Lamiako, San Bartolomé... eremu urrunak

Salmenta kanalak

Gure zerbitzua Aldundiei, Udalei edo Eusko Jaurlaritzari salduko genieke. Garbiketa zerbitzuetan dirua aurrezteko laguntza bat izango litzatekeela eta herrietako kaleak garbiago eta modernoago ikusiko direla nabarmenduko genieke. Era honetara gure proiektua ikusgarriagoa eta erakargarriagoa izan dadin.